



Arartekoaren 2022NI-1082-21 Ebazpena, 2022ko otsailaren 21ekoa, Arartekoaren jardura amaitzen duena eta Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari eskubideak azkentzeko ebazpenak arrazoitzeko betebeharra gogorarazten diona.

Aurrekariak

1.- Herritar batek Arartekoarengana jo du, eta adierazi du ez dagoela ados Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzaren prestazio osagarria (EPO) jasotzeko eskubidea azkentzearekin, ez eta ondoren prestazioak aitortzeko aurkeztu zituen eskubideak ukatzearekin ere.

Prestazioa iraungi baino lehen, 2020ko martxoaren 20ko ebazpenaren bidez, Lanbidek prestazioak etetea ebatzi zuen, DSBE prestazioa kobratzeko eskubideari dagokion epealdia baino epealdi luzeagoan Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE) kanpo irteteagatik. Ebazpen hori Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 43.2 artikulua aplikatuz eman zen, arau horren 12.2.a) artikuluan ezarririk dagoen beharkizuna ez betetzeagatik.

Itzuli zenean, 2021eko apirilaren 23an, kexagileak bere prestazioei berriro ekiteko eskatu zuen.

Ondorik, Lanbidek bere prestazioak iraungi zituen 2021eko apirilaren 24ko ebazpenaren bidez (2021eko apirilaren 1etik aurrerako ondoreekin). Kontratua azkentzeko arrazoiaren artean, honako hau aipatzen da: 12 hilabetetik gorako etenaldi jarraitua gertatu izana, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.d) artikulua aplikatzearen ondorioz, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketaren arabera (18/2008 Legea).

2021eko maiatzaren 14an, kexagileak aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen azkentze-ebazpen horren aurka. Errekurtso horretan adierazi zuen ez zegoela ados azkentzearen arrazoiekin eta azkentze horren ondore-datarekin. Ildo horri jarraikiz, errekurtsogileak alegatu zuen prestazioak jasotzeko eskubidea etenda zegoela 2020ko martxotik, EAetik kanpo irteteagatik, eta, hainbestez, iraungitze-datarako urtebete beteta zuela ezelako prestaziorik jaso gabe.

Era berean, data horretan (2021/05/14), bere prestazioak berriro hasteko eskatu zuen, nahiz eta une horretan prestaziook iraungita egon.



2021eko maiatzaren 27ko Ebazpenaren bidez, Lanbidek 2021eko apirilaren 23ko prestazio-eskabideari ezezkoa ematea erabaki zuen, 2021eko bizikidetza-unitate bat osatzeko baldintza gutxienez eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik ez betetzea oinarri hartuta, 147/2010 Dekretuaren 9.1 artikularekin lotuta dagoen 18/2008 Legearen 16.a) artikuluan xedaturik dagoenaren arabera; horren arrazoia da interesdunak bere benetako egoitza galdu zuela 2020ko otsailaren 22tik 2021eko martxoaren 23ra atzerrira joateagatik; benetako egoitza hori 2021eko martxoaren 23an berreskuratu zuen.

2021eko ekainaren 25ean, kexagileak aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri zuen prestazioak ukatzeko ebazpen horren aurka. Horrekin batera, errolda-ziurtagiriak aurkeztu zituen, azken 10 urteetan EAEn 5 urtez jarraian bizi izan zela frogatzen zutenak. 2021eko uztailaren 12an, aurkeztu gabe zeuden ziurtagiriak erantsi zizkion errekurtsoari.

Era berean, 2021eko ekainaren 25ean, Lanbidek ezetsi egin zuen 2021eko maiatzaren 14an errekurtsogileak 2021eko apirilaren 24ko prestazioen iraungipen-ebazpenaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa, ulertzen zuelako ez zela EAetik kanpo irteteagatik etete-ebazpenaren aurkako errekurtsorik aurkeztu, eta, beraz, administrazio-egintza irmo eta erasanezina bihurtu zela; eta 12 hilabete baino gehiagoan prestazioak etenda egon zirela une oro. Horrenbestez, DSBE prestazioa azkentzeari doakion ebazpena zuzena dela eta zuzenbidearekin bat datorrela uste du Lanbidek.

Ondoren, 2021eko ekainaren 16an, kexagileak prestazioak aitortzeko beste eskabide bat aurkeztu zuen.

2021eko urriaren 23ko ebazpenaren bidez, Lanbidek bere eskabidea berriro ukatzea erabaki zuen, baina kasu honetan DSBE prestazioa iraungita zeukalako, halako moldez non interesdunak ezin baitzezakeen berriz eskatu 2021eko apirilaren 1era arte.

Azkenik, 2021eko urriaren 25eko ebazpenaren bidez, Lanbidek ezetsi egin zuen kexagileak 2021eko ekainaren 25ean prestazioak onartzeko eskabidea ukatzeko 2021eko apirilaren 23ko ebazpenaren aurka jarri zuen berraztertze-errekurtsoa. Lanbidek alegatu zuen errekurtsoa izapidetzen ari zen bitartean honako honetaz ohartu zela: interesdunaren eskabidea ukatzeko ebazpenaren aurreko 2021eko apirilaren 24ko azkentze-ebazpenak berekin zekarrela interesdunak DSBE prestazioa berriro ezin eskatu izana, harik eta iraungitze-datatik urtebete igaro arte, 18/2008 Legearen 28.3 artikulua aplikatzearen ondorioz. Horrenbestez, azkentzeak 2021eko martxoaren 1etik aurrerako ondoreak dituzenez, errekurtsogileak ezin izango luke DSBE berriro eskuratu 2022ko martxoaren 1era arte; beraz, Lanbidek ukatu egin

behar ditu data hori baino lehen aurkeztutako eskabide guztiak, prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen ote diren baloratu ere egin gabe.

Horrezaz gainera, ebazpen horretan alegatzen denez, prestazioak ukatzeko 2021eko maiatzaren 27ko ebazpenean interesdunari jakinarazi ez zitzaionez urtebetez ezin izan zela DSBE berriro eskatu, entzunaldi-izapide bat egin zen. Entzunaldi-izapide hori 2021eko urriaren 11n jakinarazi zen, interesdunari egitate horren berri emate aldera.

2.- Kexa-espeditentean planteatzen diren gaiak aztertu ondoren, Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailera jo zuen prestazioak ukatzeko 2021eko maiatzaren 27ko ebazpenari dagokionez, Sail horri honako hau helarazte aldera: interesdunak, hain zuzen ere, ez zuen betetzen prestazioa aitortzeko eskaera egin baino 3 urte lehenago erroldatuta zegoela eta benetako egoitza EAEn zuela egiaztatzeko baldintza; baina, hala eta guztiz ere, erroldatuta zegoela eta azken 10 urteetan 5 urtez jarraian benetako egoitza EAEn zuela egiaztatu zuen, 18/2008 Legearen 16. artikulua eskatzen duen legez. Hori dela eta, Arartekoak gaiari buruz zuen informazio guztia eskatu zion sail horri.

3.- Informazio-eskaerari erantzunez, Lan eta Enplegu Sailak Lanbideko zuzendari nagusiaren erantzuna bidali zion Arartekoari, eta bertan adierazi zuen 2021eko apirilaren 24ko prestazioak azkentzeko ebazpenaren oinarria kexagilearen DSBE prestazioa 12 hilabete baino gehiagoz etenda egon zela, 18/2008 Legearen 28.1.d) artikuluan xedaturik dagoena aplikatzearen ondorioz.

2020ko martxoaren 20a baino lehen prestazioak eteteko ebazpena eragin zuen arrazoia gizarteratzeko hitzarmenean hartutako konpromisoak ez betetzea izan zen, DSBE prestazioa kobratzeko eskubidea eragiten duen epealdia baino epealdi luzeagoan irten zelako EAetik. Ebazpen hori behar bezala jakinarazi zen, eta ebazpen horri ez zitzaion errekurtsorik jarri; hainbestez, administrazio-egintza irmo eta aurkaraezin bilakatu zen.

Etenaldiaren datatik 12 hilabete baino gehiago igaro ondorik, prestazioa une oro etenda egon baitzen, Lanbidek DSBE prestazioa azkentzea erabaki zuen.

Horri dagokionez, Lanbidek ulertu zuen kexagileak ezin izan zuela EAera itzuli Aljeriako mugak itxita zeudelako, eta horrek ez zuela frogatzen ezinbesteko kausa izan zenik, kexagileak urte oso bat izan baitzuen EAera itzuli ahal izateko.

Prestazioak ukatzeko 2021eko maiatzaren 27ko ebazpenari dagokionez, Lanbidek errekurtsua ukatzeko 2021eko urriaren 25eko ebazpenean formulatutako arrazoi berberak alegatu zituen; hau da, aurkeztu zen errekurtsua izapidetzean, ohartu zen prestazioak iraungitzeko 2021eko apirilaren 24ko ebazpenak berekin zekarrela



DSBE prestazioa berriro ezin eskatu izana iraungipen-datatik aurrera zenbatu beharreko urtebeteko epean, 283. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horrezaz gainera, adierazi duenez, prestazioak ukatzeko 2021eko maiatzaren 27ko ebazpenean interesdunari ez zitzaionez jakinarazi urtebetez DSBE prestazioa berriro eskatu ezin zuenik, entzunaldi-izapide bat bideratu zen, eta 2021eko urriaren 11n jakinarazi zitzaion, kexagileari entzunaldi-izapide horren berri emateko eta egokitzat jotzen zuena alegatzeko.

Azkenik, jakinarazi du kexagileak 2021eko ekainaren 16an egindako prestazio-eskabidea ukatu egin zela, DSBE prestazioa urtebetez, hau da, 2022ko apirilaren 1era arte, eskatzea ezinezkoa zelako, 18/2008 Legearen 28.3 artikulua aplikatzearen ondorioz.

Gogoetak

1.- Lanbidek onuradunaren prestazioak azkentzea erabaki du, 18/2008 Legearen 28.1 artikuluan, eskubidea azkentzeko arrazoiei buruzkoan, aurreikusitako kasuan erori dela uste baitu. Artikulu horretan honako hau ezartzen da: *"d) Etete-egoera bat hamabi hilabetetik gorako denbora jarraituan mantentzea."*

Az kentzearen ondoren, kexagileari jakinarazi dio 2022/04/01era arte ezin duela berriro DSBE prestaziorik eskatu, 18/2008 Legearen 28.3 artikuluan xedaturik dagoena aplikatzearen ondorioz. Honela dio artikulu horrek: *"Prestazioa iraungiko balitz betebeharrak ez betetzeari edo hutsak egiteari lotutako kausengatik, titularrak ez du izango aukerarik diru-sarrerak bermatzeko errenta, bere ezein modalitatetan, berriro eskatzeko urtebetean, iraungitze-datatik zenbatzen hasita. Ondorio berbera eratorriko da artikulu honetako 1.d eta 1.e idatz-zatietan jasotako etete-kasuei lotutako iraungitze batetik."*

2.- Arartekoaren iritziz, Lanbidek kexa-espeditente honetan izan duen jarduera ez da okerra izan, araudian horrelako kasuetarako aurreikusirik dauden lege-aginduak aplikatu baitira.

Ildo horri jarraikiz, kexagilearen prestazioak etenda egon ziren aldi orotan 2020ko martxoaren 20tik (etete-ebazpenaren data) 2021eko apirilaren 23ra arte (egun horretan jakinarazi zion Lanbideri EAEra itzuli zela eta prestazioa berriro jasotzen hasteko eskatu zuen); guztira, prestazioa urtebete eta 34 egunean egon zen etenda. Horrenbestez, zuzenbidearekin bat dator 18/2008 Legearen 28.1.d)



artikulua aplikatzea, hau da, DSBE prestazioa azkentzea 12 hilabetetik gorako etendura-egoera gertatzeagatik.

Horrezaz gainera, 18/2008 Legearen 28.3 artikularen arabera, azkentzea 28.1.d) artikuluan aurreikusita dagoen etetearekin lotuta dagoenean, titularrak ezin izango du DSBE prestazioa urtebeterako berriro eskatu, epealdi hori azkentze-datatik aurrera zenbatzen hasita. Horrenbestez, azkentzearen ondoreetatik hasi eta urtebeteko epean (2021eko apirilaren 1era arte) errekurtsogileak DSBE prestazioa berriro ezin eskatu izana ere egokitzat jotzen da, zeren eta arautegiak berariaz aurreikusten baitu ondore hori.

3.- Hala ere, Lanbidek espediente honi dagokionez gauzatu dituen jarduketa guztiak eta kexagileak egindako izapideak zehatz-mehatz aztertu ondorik, Arartekoak uste du interesgarria dela zenbait gai nabarmentzea, arlo horietan jarduketa hobek egiteko aukerak daudela uste baitu.

3.1.- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzeko eskubideari doakion epealdia baino epealdi luzeagoan EAetik irten izateagatik eten zen prestazioa.

Horri dagokionez, esan behar da kexagileak aldeztu aurretik jakinarazi zuela EAetik irten behar zuela berari zegokion Lanbideren bulegoan, eta 2020 otsailaren 23tik 2020ko apirilaren 30era arte EAetik kanpo egongo zela. Hala ere, adierazten duenez, COVID-19aren pandemiak Aljeriako mugak itxita egotea eragin zuenez, ezin izan zen EAera itzuli 2021eko martxoaren 23ra arte, hau da, aurreikusita zuen datatik ia urtebetera arte.

Lanbideren ustez, Aljeriako mugak ixtea ez da ezinbesteko arrazoia, bere herrialdean egon zen urte osoan zehar noizbait EAera itzuli ahal izateko aukeraren bat izango zuelako.

ldo horri jarraikiz, COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz bizitzen ari garen salbuespenezko egoera aipatu behar da, kolektibo jakin batzuei bereziki eta modu larriagoan eragiten baitie beren zailtasun ekonomiko eta sozialeko egoeragatik. Arartekoaren iritziz, administrazio publikoek, herritarrek alegatzen dituzten arrazoi objektiboez gain (kasu honetan, mugak ixtea), kontuan hartu beharko lituzkete pandemiak eragiten duen arazo larri horren azpian dauden arrazoi subjektiboak ere, hau da, egungo osasun-krisiaren testuinguruak pertsonengan eragiten duen beldurra. Beldur hori, hein handi batean, herritarrek administrazioarekin dituzten harremani dagokionez egiten dituzten jarduerak ebaluatzeko komunikabideetan zabaltzen den informazioak eragiten du. Zehazki, eta aztergai dugun kasuari dagokionez, kexagileak egin duen ez-betetzea, gure aburuz, hagitik loturik dago pandemia-egoerarekin eta mundu osoan zabaldua dagoen epidemia horrek herritarrengan sortzen duen beldurrekin eta ziurgabetasunarekin.



3.2.- Arestion aipatu dugun legez, 2021eko apirilaren 24ko prestazioak azkentzeko ebazpenaren oinarria da, batik bat, hamabi hilabetetik gorako etenaldi jarraitua izatea, 18/2008 Legearen 28.1.d) artikulua aplikatzearen ondorioz.

Hala ere, ebazpen horrek ez du inoiz aipatzen arrazoi horrek eragin duen azkentzeak DSBE prestazioa berriro ezin eskatu izana dakarrenik prestazio hori azkendu eta urtebeteko epea igaro arte, 18/2008 Legearen 28.3 artikuluan xedaturik dagoena oinarri hartuta.

Era berean, nabarmendu behar da 2021eko maiatzaren 27ko prestazioen aitortpena ukatzeko ebazpenak ere ez duela aipatzen ezintasun hori; aitzitik, ukapenaren oinarria da interesdunak ez duela betetzen 18/2008 Legearen 16.a) artikuluan eta 147/2010 Dekretuaren 9.1 artikuluan aurreikusitako bizikidetzaren unitatea eratzeko baldintza.

Lanbidek aitortu duenez, kexagileak 2021eko ekainaren 25ean ezespenebazez horren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa izapidetu arte ez zen konturatu 2021eko apirilaren 24ko azkentze-ebazpenak urtebetez DSBE prestaziorik ezin eskatu izana zekarrela.

Informazio-gabezia hori zuzentze aldera, Lanbidek entzunaldi-izapide bat bideratu zuen, eta 2021eko urriaren 11n jakinarazi zitzaion kexagileari, hari egitate horren berri emateko eta egoki iritzitako alegazioak aurkez zitzan errazteko.

Aplikatu beharreko araudiak aurreikusten badu ere hamabi hilabetetik gorako etenaldia gertatzeagatik azkentzearen ondorioz urtebetez DSBE prestazioa berriro eskatzea ezinezkoa dela, Arartekoak uste du Lanbidek kexagilearen interesak hobeki bermatzeko moduan jardun zezakeela kasu honetan, administrazio-egintzen motibazio-eskakizunarekin bat etorriz, eta ondorio hori, bere arau-aurreikuspenarekin batera, 2021eko apirilaren 24ko azkentze-ebazpenean eta 2021eko maiatzaren 27ko prestazioak onartzeko ukatze-ebazpenean sartu behar izan zuela.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. artikuluan xedatutakoaren arabera, *"1. Arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz: a) Eskubide subjektiboak edo interes legitimoak murrizten dituzten egintzak"*. Era berean, arau-multzo bereko 84.2 eta 88.3 artikuluek ezartzen dute prozedura amaitzen duten ebazpenak arrazoitu egin behar direla.

Beste alde batetik, 147/2010 Dekretuaren 55.2 artikulua xedatzen du azkentze-ebazpena arrazoitua izan beharko dela.



Arartekoak jada adierazi du garrantzitsua dela eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak arrazoitzea, gomendio honetan: [Arartekoaren 1/2014 gomendio orokorra, urtarrilaren 20koa. Lanbidek arrazoitu egin behar ditu eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak](#),¹ bai eta txosten honetan ere: [Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017](#)²

Motibazio ororen helburua da ukitutako pertsonari aukera ematea Administrazioaren ebazpena eragin duten arrazoen berri jakiteko eta Administrazioaren aurrean alegazio eraginkorrak aurkeztu ahal izateko, defentsa-gabeziako egoerarik sor ez dadin.

Hainbestez, arrazoibideak egitateen kontaketa eta ebazpenaren bidez hartutako neurrien justifikazio juridikoa izan behar du.

Arartekoaren ustez, aztertzen ari garen kasuan, Lanbidek arreta handiagoz joka zezakeen; izan ere, azkentzea oinarritzen duen lege-agindua sartu arren (18/2008 Legearen 28.1.d) artikulua), ez zuen aipatu urtebetez prestazioa eskatu ezin izanaren ondorioa aplikatzen duen zuzenbide-oinarria (arau-multzo bereko 28.3 artikulua).

Kexagileari geroago egindako entzunaldi-izapidea ez da nahikoa aurreko ebazpenek zuten akatsa zuzentzeko.

Horren guztiaren ondorioz, gure aburuz, 18/2008 Legearen 28.3 artikulua ez aipatzeak, bai azkentze-ebazpenean, bai prestazioa aitortzea ukatzeko ebazpenean, prestazioa berriro jaso ahal izateko igurikimen legitimoa sortu zuen kexagilearengan, [Čakarević Kroaziaren aurka](#) deritzon kasuan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak xedatu zuenaren arabera³.

3.3.- Azkenik, adierazi behar da Lanbidek DSBE prestazioari dagokion espediente honetan gauzatu dituen jarduketek eta errekurtsogileak egin dituen izapideei emandako erantzunak nahasmen handiko egoera eragin zutela kexagileari doakionez.

Prestazioak azkentzeko 2021eko apirilaren 24ko ebazpenak ez zuen aipatu DSBE prestazioa berriro ezin eskatu izana harik eta urtebete igaro arte (2022/04/01), eta,

¹ Eskuragarri hemen: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3269_3.pdf

² Eskuragarri hemen: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_4199_3.pdf

³ Giza Eskubideen Europako Auzitegia. 2018ko apirilaren 26ko epaia. Kasua: Čakarević Kroaziaren aurka. *Application n. 48921/13*. Eskuragarri hemen: <http://hudoc.echr.coe.int/eng?i=001-182445>



horren ondorioz, interesdunak berriro eskatu zituen prestazioak data hori baino lehen.

Era berean, prestazioak ukatzeko 2021eko maiatzaren 27ko ebazpenaren oinarria izan zen kexagileak ez zuela bizikidetzaren unitate bat eratzeko baldintza gutxieneko urtebeteko aurrerapenarekin betetzen, EAetik irteteagatik benetako egoitza galdu zuelako. Hori dela eta, kexagileak uste izan zuen, EAEn erroldatuta egotearen eta bertan benetako egoitza izatearen baldintza azken 10 urteetan 5 urtez jarraian bete zuenez, prestazioak jasotzeko aukera izango zuela bide horren bitartez, eta, hainbestez, bide hori erabili ahal izango zuela, erroldatze-ziurtagiri egokiak eskuratu ostean.

Horrek guztiak nahasmena sortu zion interesdunari egin behar zituen ekintzei buruz, eta alferrikako ekintzak egitera eraman zuen. Erakunde honen ustez, ekintza horiek guztiak saihestu egin zitezkeen. honako ebazpen honek jasotzen duen azterketa xehekatuaren emaitza gisa, Arartekoak ondoriozta dezake herritarrari ez zaiola informaziorik eta arretarik eskaini, zerbitzu publiko batean eska daitekeen legez, eta horrek nahasmen eta ziurgabetasun handia eragin dizkio kexagileari.

Horregatik guztiagatik, erakunde hori sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, Arartekoak egokitzat jo du Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailari honako hau gogoraraztea.

Ondorioak

Arartekoak gogorarazten du pertsonak DSBE prestazioa jasotzeko duten eskubidea azkentzen duten ebazpen guztiak arrazoitu egin behar direla, eta, bereziki, ebazpen horietan berorien ondorio guztiak sartu behar direla, ebazpenoi dagokien oinarri juridikoarekin batera.

Halaber, Arartekoak uste du herritar honi eskaini zaizkion arreta eta argibideak hobetu egin daitezkeela, eta horretaz hausnarketa egin beharko litzatekeela, aurrerantzean oraingoa antzeman diren gabeziak errepika ez daitezen.